Kurbak eta gainazalak irudikatzen eta bere osagaien kalkula egiketo, software eta baliabide informatikoak erabiltzen jakitea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

- KURBAK ESPAZIO EUKLIDEARREAN:** Kurbak parametrizatu erregularrak, parametrizazio baliokideak, parametro naturala, kurbadura, Frenet-en Triedroa, Frenet-en formulak, bihurtura, kurben teorema nagusia.
- GAINAZAL ERREGULARARRAK:** Gainazal erregularrak, gainazalen gaineko funtzio diferentziagarriak, gainazalen arteko aplikazio diferentziagarriak, difeomorfismoak, gainazal baten gaineko bektore ukitzaileak, plano ukitzailea, gainazalen arteko aplikazioen diferentziala, tokiko difeomorfismo, lehen forma nagusia, bektore-eremuak, orientazioa, orientagarritasunaren ezaugarriak.
- GAUSS-EN APLIKAZIOA:** Gauss-en eta Weingarten-en aplikazioak, bigarren forma nagusia, kurbadura normalak, Meusnierren teorema, kurbadura nagusiak, norabide nagusiak, kurbadura lerroak, Olinde-Rodriguesen teorema, Gaussen eta batezbesteko kurbadurak, gainazalen puntuen sailkapena, norabide asintotikoak, Dupinen adierazlea, norabide konjokatuak, Gaussen aplikazioa koordenatuetan, Weingartenen ekuazioak, Gaussen eta batezbesteko kurbaduren adierazpenak.
- GAINAZALEN BEREZKO GEOMETRIA:** Isometriak eta zatikako isometriak, aplikazio konformeak eta zatikako konformeak, Christoffelen ikurrak, Mainardi-Codazziren ekuazioak, Gaussen Egregium teorema, Bonneten teorema.
- GEODESIKOAK:** Bektore-eremuen deribatu kobariantea, kurba baten gaineko garraiaketa paraleloa, kurba geodesikoak, kurbadura geodesikoa, Liouvilleen formula, kurba geodesikoen ekuazio diferentzialak, exponentziala aplikazioa, koordenatu geodesiko polarrak.

**METODOLOGIA**

Teorizko edukinaz ikasi egin behar dena, liburu zerrendan topa daitekeena jarraituz, ikas ordu magistraletan egingo da. Hauek osatzeko, ariketa ikas orduak ere egingo dira. Horietan, erakutsi egingo da nola erabiltzen den magistraletan ikasitakoa, ariketa erronkei aurrera egiteko.

Mintegietan, ordea, irakasgaiaren nondik norakoa argituko duten erronkak landu egingo dira, ikasleei aldeztu aurretik igorriak izan direnak, hausnarketaren zatirik handiena eurek egin dezaten.

Horrez gain ordenaigailu praktikak egingo dira irakasgaiaren gaitasunak lortzeko asmoarekin.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45	9	27		9				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5	13,5	40,5		13,5				

**Legenda:**

M: Magistrala  
GCL: P. klinikoak

S: Mintegia  
TA: Tailerra

GA: Gelako p.  
TI: Tailer Ind.

GL: Laborategiko p.  
GO: Ordenagailuko p.  
GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Ebaluazio jarraituaren sistema



- Azken ebaluazioaren sistema

#### **KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Ikus ORIENTAZIOAK % 100

#### **OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Nahitaezkoa izango da mintegietara eta ordenagailu praktiketara joatea.

Ordenagailu praktiketara joatea beharrezkoa denez, ikasleak kurtsoan zehar praktika horiek ez baditu egin praktika horiek menperatzen dituela erakutzi beharko du proba praktikoko batean.

Praktika horiek aurreko moduan gainditu direnean, azken nota honelaxe banatuko da: %85 idatzitako azterketatik, %10 ikasle bakoitzaren lanetatik eta %5 mintegietan egindako lanetatik.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ordenagailu praktiketara joatea beharrezkoa denez, ikasleak kurtsoan zehar praktika horiek ez baditu egin praktika horiek menperatzen dituela erakutzi beharko du proba praktikoko batean.

Kurtsoan zehar praktika horiek modu egokian egin baditu, orduan ebaluazioa azterketa idatzi baten bidez soilik egingo da.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

M. P. DO CARMO, Diferencial de Curvas y Superficies, Alianza Universidad Textos 135, Alianza Editorial, 1990.

L. A. CORDERO, M. FERNANDEZ y A. GRAY, Geometría Diferencial de Curvas y

Superficies con Mathematica, Addison-Wesley Iberoamericana, 1995.

A. GRAY, Modern Differential Geometry of Curves and Surfaces, Addison-Wesley, 1997.

C. C. HSIUNG, A First Course in Differential Geometry, International Press, 1997.

E. KREYSZIG, Differential Geometry, Dover, 1991.

J. McCLEARY, Geometry from a Differential Viewpoint, Cambridge Univ. Press, 1994.

R. S. MILLMAN y G. D. PARKER, Elements of Differential Geometry, Prentice-Hall, 1977.

A. MONTESDEOCA, Apuntes de Geometría Diferencial de Curvas y Superficies, Col. Textos Univ. Gob. Canarias, 1996.

S. MONTIEL, A. ROS, Curvas y Superficies, Proyecto Sur, 1997.

J. OPREA, Differential Geometry and its Applications, Prentice Hall, 1997.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

##### **Aldizkariak**

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

#### **OHARRAK**

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GMATEM31 - Matematikako Gradua

Ikastaroa 2. maila

**IRAKASGAIA**

26011 - Matematika Diskretua

ECTS kredituak: 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgaiaren helburua Matematikako oinarrizko elementuak ezagutzea eta matematikako lengoiaren erabilpena, frogapen-teknikak eta problemen ebazpenak lantzea da. Irakasgai honen bidez lehenengo mailako Oinarrizko Matematikan sartutako gai konbinatorioak sakontzen dira eta bigarren mailako Probabilitate-Kalkulurako onarria da. Sartutako kontzeptu batzuk, esate baterako errepikapenak eta grafoak, hirugarren mailako Zenbakizko Metodoak II eta laugarren mailako Programazio Matematiko irakasgaietan erabiltzen dira.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK****GAITASUNAK**

Funtsezko frogapen matematikoen motak eta problemen ebazpen teknikak (behaketa-aierua-frogapena) ezagutzea. Multzo-teoriaren oinarrizko osagaiak ezagutzea eta erabiltzea. Problema konbinatorioak ebazten jakitea, oinarrizko teknikak, funtzio sortaileak eta errepikapenak erabiliz. Identitate konbinatorioak eta esanahi konbinatorioa duten zenbaki-familia garrantzitsuenak ezagutzea. Grafo teoriaren oinarrizko kontzeptuak, teknikak eta emaitzak ezagutzea eta bere aplikazio anitzetatik batzuetaz jabetzea.

**IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Zerrendatze-konbinatoriaren teknika nagusiak, esanahi konbinatorioa duten zenbaki-familia garrantzitsuenak eta grafoak eta haien aplikazioak ezagutzea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. OINARRIZKO KONBINATORIA: Oinarrizko baliabideak konbinazio-arrazoibidean. Partekotasun-baztertze printzipioa. Usategiaren printzipioa.
2. KONBINAZIO-IDENTITATEAK: Koefiziente binomialak eta multinomialak. Binomioaren eta multinomioaren formulak. Erlazionatutako identitateak.
3. FUNTZIO SORTZAILEAK ETA ERREPIKAPENAK: Zenbakizko segida baten funtzio sortailea. Konbinazio-problemen erabilerak. Errepikapenak eta konbinazio-problema. Errepikapenak eta funtzio sortaileak. Osagai orokorraren lortzea.
4. ZENBAKI-FAMILIA GARRANTZITSU BATZUK: Fibonacciren zenbakiak. Catalanen zenbakiak. Bellen zenbakiak. Stirlingen zenbakiak.
5. GRAFOAK: Oinarrizko kontzeptuak. Bideak. Zuhaitzak. Planotasuna. Koloratzea.

**METODOLOGIA**

Klase magistraletan teoria garatuko da.  
Mintegietan ikasleriak lanak edo problemak landuko edo aurkeztuko ditu.  
Gelako praktikan ariketak ebaztuko dira.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	6	18						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	54	9	27						

**Legenda:**

M: Magistrala  
GCL: P. klinikoak

S: Mintegia  
TA: Tailerra

GA: Gelako p.  
TI: Tailer Ind.

GL: Laborategiko p.  
GO: Ordenagailuko p.  
GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

**KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Talde lanak (arazo ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 5

**OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA****ORIENTAZIOAK**

Amaierako azterketa (%70), ariketen ebazpena (%10) eta lanak egitea eta aurkeztea (%20). Irakasgaia gainditzeko nota

minimoa 5 (10etik) izan behar da, amaierako azterketaren nota (derrigorrezkoa) gutxienez 4 (10etik) delarik.

#### ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEA

Ikasleak etengabe ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu behar dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du.

#### DEIALDIARI UKO EGITEA

Azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

### EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

#### ORIENTAZIOAK

Ikaslearen onurako bada, ariketak eta lanen puntuazioa deialdi ezohikorako gorde ahal izango da, baina ez da gordeko ikasturte batetik beste batera.

#### DEIALDIARI UKO EGITEA

Azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

### NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Gomendatutako materiala plataforma birtualean eskuragarri egongo da.

### BIBLIOGRAFIA

#### Oinarrizko bibliografia

- D.I.A. COHEN, Basic Techniques of Combinatorial Theory, Wiley, New York, 1978.
- J.M. HARRIS, J.L. HIRST, M.J. MOSSINGHOFF, Combinatorics and Graph Theory, Springer, New York, 2008.
- N. HARTSFIELD, G. RINGEL, Pearls in Graph Theory, Dover, New York, 1994.
- R.L. GRAHAM, D.E. KNUTH, O. PATASHNIK, Concrete Mathematics, Addison-Wesley, Reading, Mass., 1994.

#### Gehiago sakontzeko bibliografia

- V.K. BALAKRISHNAN, Combinatorics, Schaum's Outline Series, McGraw-Hill, 1995.
- R.C. BOSE, B. MANVEL. Introduction to Combinatorial Theory, Wiley, New York, 1984.
- F. GARCIA MERAYO, Matemática Discreta, Paraninfo, Madrid, 2001.
- J. HEBER NIETO SAID, Teoría Combinatoria. La Universidad del Zulia, 1996. <http://www.jhnieto.org/tc.pdf>
- D.A. MARCUS, Combinatorics: A Problem Oriented Approach, The Mathematical Association of America, 1998.
- R. J. TRUDEAU, Introduction to Graph Theory, Dover Publications, Inc, Nueva York, 1993.
- N. Ya. VILENKIN, Combinatorics, Academic Press, New York, 1971.
- H.S. WILF, Generatingfunctionology, Academic Press, Boston, 1990. <http://www.math.upenn.edu/~wilf/gfology2.pdf>

#### Aldizkariak

- The Electronic Journal of Combinatorics <http://www.combinatorics.org/>
- The Fibonacci Quarterly <http://www.fq.math.ca/>

#### Interneteko helbide interesgarriak

- Kombinatoria <http://mathworld.wolfram.com/topics/Combinatorics.html>
- Pascal-en triangelua [http://en.wikipedia.org/wiki/Pascal%27s\\_triangle](http://en.wikipedia.org/wiki/Pascal%27s_triangle)
- Usategiaren printzipioa [http://www.cut-the-knot.org/do\\_you\\_know/pigeon.shtml](http://www.cut-the-knot.org/do_you_know/pigeon.shtml)
- Fibonacci-ren zenbakiak <http://www.maths.surrey.ac.uk/hosted-sites/R.Knott/Fibonacci/>
- Catalanen zenbakiak <http://mathforum.org/advanced/robertd/catalan.html>
- Lehen motako Stirlingen zenbakiak <http://mathworld.wolfram.com/StirlingNumberoftheFirstKind.html>
- Bigarren motako Stirlingen zenbakiak <http://mathworld.wolfram.com/StirlingNumberoftheSecondKind.html>
- Zenbaki arrunten entziklopedia <http://oeis.org/>
- Grafoak [http://en.wikipedia.org/wiki/Graph\\_theory](http://en.wikipedia.org/wiki/Graph_theory)

### OHARRAK

**TEACHING GUIDE**

2018/19

**Centre** 310 - Faculty of Science and Technology**Cycle** Indiferente**Plan** GMATEM31 - Bachelor's Degree in Mathematics**Year** Second year**SUBJECT**

26667 - Numerical Methods I

**ECTS Credits:** 6**DESCRIPTION & CONTEXTUALISATION OF THE SUBJECT**

This course, together with the third year course Numerical Methods II, aims to offer a systematic presentation of some of the most important and elementary numerical analysis techniques. In both courses, it is compulsory to do computer assignments using a programming language. Both courses are intended to equip the students with a basic and transversal formation in the field, that will enable them to understand and apply the acquired knowledge and abilities in multiple interrelated directions.

Since this course is offered in English, at least a B2 level is strongly recommended.

**COMPETENCIES/LEARNING RESULTS FOR THE SUBJECT****SPECIFIC COMPETENCES**

Implementing algorithms in a structured programming language.

Using numerical resolution algorithms: programming in a computer numerical methods and applying them in an effective way.

Analyzing the convenience of one or more numerical methods for a specific problem.

Evaluating the obtained results and drawing conclusions after the computations.

**LEARNING RESULTS**

Knowing the basic techniques of numerical analysis and their translation into algorithms or constructive methods to solve problems.

Programming the studied numerical methods in a computer using a structured language and applying them effectively.

Using packages in which some of the studied methods are applied, and which can serve as a auxiliary tool to one's own codes.

Analyzing the convenience of one or more numerical methods for a given problem, based on the error analysis, the computational cost and other characteristics.

Evaluating the obtained results and drawing conclusions after each computation.

Communicating ideas and results related to the specific contents of this course, both orally and in writing.

**THEORETICAL/PRACTICAL CONTENT****THEORETICAL CONTENTS**

1. INTRODUCTION TO NUMERICAL CALCULUS: Computer arithmetic and error propagation.

2. BASIC MATLAB NOTIONS

3. RESOLUTION OF LINEAR SYSTEMS OF EQUATIONS: Direct methods. Minimum square methods and overdetermined systems.

4. RESOLUTION OF NONLINEAR EQUATIONS AND SYSTEMS. Roots searching methods for nonlinear equations. Fix point methods and Newton's method.

**PRACTICAL CONTENTS**

The computer assignments are associated to the theoretical contents, reinforcing their learning by implementing the studied algorithms in an adequate way.

**METHODS**

The theoretical contents will be taught during the master (M) classes, following the lecture notes uploaded in the virtual class at platform eGela. These master lectures will be supplemented with problem sessions (classroom sessions, GA), where the students will solve questions where they will have to apply the acquired theoretical knowledge. In the seminar sessions (S), questions and examples relative to the contents of the course will be developed; these will be usually provided to the students so they can work previously on them, with the aim of facilitating the discussion in the seminar sessions.

In addition, the students will have to do computer assignments oriented to the goals of this course, using a programming language. In this course, we will use MATLAB.

## TYPES OF TEACHING

Type of teaching	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Classroom hours	30	6	9		15				
Hours of study outside the classroom	45	9	13,5		22,5				

**Legend:** M: Lecture S: Seminario GA: Pract.Class.Work GL: Pract.Lab work GO: Pract.computer wo  
GCL: Clinical Practice TA: Workshop TI: Ind. workshop GCA: Field workshop

## ASSESSMENT SYSTEMS

- Continuous assessment system
- Final assessment system

## TOOLS USED & GRADING PERCENTAGES

- See GUIDELINES (ORIENTACIONES) below 100%

## ORDINARY EXAM CALL: GUIDELINES & DECLINING TO SIT

In the ordinary exam call, the continuous assessment system will have the following percentages:

Final exam: 50%  
Computer assignments: 20%  
Seminars: 10%  
Partial exams: 20%

In order to apply this method of evaluation, a minimum grade of 4 out of 10 is required in the final written exam; otherwise, the final grade will be the one obtained in that exam.

### FINAL EXAM CRITERIA

The student that does not want to be assessed through the continuous assessment system has the right to do a final assessment exam; however, he or she must give written notice of withdrawal from the continuous assessment system during the first 15 weeks of the autumn term. In that case, the evaluation for that student will be a final assessment exam, plus a complimentary test to be done together with the final exam, that can be an oral exposition, an activity in front of a computer or doing some written assignment; it will measure the acquisition of the course competences will be assessed.

### NOT TAKING THE FINAL EXAM

In spite of assessing the activities done during the course, a student who does not take the final exam will obtain the grade "No presentado".

## EXTRAORDINARY EXAM CALL: GUIDELINES & DECLINING TO SIT

In the extraordinary exam call, the same criterion applies as in the ordinary call.

All the activities done during the course (computer assignments, exercises, seminars) will be evaluated in both calls). Therefore, the student that has passed those activities during the course will have to do only the written exam.

The student who has not passed the assessable activities, or who has chosen the final exam assessment system, will have to pass a complimentary test, in order to assess those activities. That test can be an oral exposition, an activity in front of a computer or doing some written assignment. The value of the test in the final grade will be the same as in the ordinary exam call.

## COMPULSORY MATERIALS

Notes and other teaching materials made available by the instructor in platform eGela.

## BIBLIOGRAPHY

### Basic bibliography

C.B. Moler: Numerical Computing with MATLAB, SIAM, 2004.  
J.M. Sanz-Serna: Diez lecciones de Cálculo Numérico, Universidad de Valladolid, 2010.  
J. Stoer and R. Bulirsch: Introduction to Numerical Analysis. Springer-Verlag, Inc., 1993.  
K.E. Atkinson: An Introduction to Numerical Analysis, John Wiley & Sons, 1989.  
U.M. Ascher and C. Greif: A First Course in Numerical Analysis, SIAM, 2011.

### In-depth bibliography

L.N. Trefethen, D. Bau: Numerical Linear Algebra, SIAM, 1997.  
N.J. Higham: Accuracy and Stability of Numerical Algorithms, SIAM, 1996.

A. Quarteroni, R.Sacco, F.Saleri: Numerical Mathematics, Springer, 2000.

**Journals**

**Useful websites**

**REMARKS**



Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GMATEM31 - Matematikako Gradua

Ikastaroa 2. maila

**IRAKASGAIA**

26689 - Probabilitateen Kalkulua

ECTS kredituak: 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honetan Probabilitate-kalkuluko oinarrizko kontzeptuak, teknikak eta emaitzak aurkezten dira.

Irakasgai hau ikasteko komenigarria da Kalkulu Diferentziala eta Integrala II irakasgaia ikasita izatea edo probetxu nahikoarekin ikasten egotea.

Hirugarren mailan ikasten den Inferentzia Estatistikoa irakasgaiarentzako oinarrizko kontzeptuak eta teknikak eskaintzen ditu irakasgai honek. Gainera, ikasleak probabilitate teoriaren oinarri intuikorra lortzen du, zeinak laugarren mailako hautazko Probabilitatea eta Prozesu Estokastikoak irakasgaiaren probabilitate teoriaren formalizazio zorrotza egitea baimentzen duen.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK****GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

Probabilitate-kalkuluko oinarrizko kontzeptu eta emaitzak ezagutzea.

Probabilitate-banaketa nagusietan trebatua egotea.

Zorizko fenomenoari lotutako terminologia zuzentasunez erabiltzea.

Zorizko fenomenoari buruzko egoera arruntak zuzentasunez modelatzea.

Zorizko fenomenoak aztertzekeo beharrezkoak diren kalkulu edo/eta adierazpide grafikoak zuzentasunez egitea, baliabide teoriko edo/eta konputazionalak erabiliz.

Egindako analisisen emaitzak sentzu kritikoarekin interpretatzea.

**IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Probabilitate kalkuluko konplexuak izan daitezkeen problemak ebazten jakitea, arlo diskretuan zein jarraituan.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. PROBABILITATEA: Zorizko fenomenoak. Gertaerak. Probabilitate-espazioak. Adibideak. Probabilitate- kalkuluko oinarrizko erregelak. Probabilitate baldintzatua. Gertaera askeak.

2. ZORIZKO ALDAGAIK: Kontzeptua. Probabilitate-banaketa. Banaketa-funtzioa. Aldagai diskretu eta jarraituak. Banaketen adibide nagusiak.

3. ZORIZKO BEKTOREAK: Kontzeptua. Probabilitate-banaketa. Adibide nagusiak. Bazter-banaketak. Zorizko aldagaien arteko independentzia. Banaketa baldintzatuak.

4. ITXAROPEN MATEMATIKOA: Kontzeptua eta propietate nagusiak. Aldagai diskretu eta jarraituen itxaropenaren kalkula.

5. MOMENTUAK: Kontzeptua. Probabilitatearen funtzio sortzailea. Momentuen funtzio sortzailea. Bariantza. Kobariantza. Korrelazioa.

6. ZENBAKI HANDIEN LEGEAK: Zorizko aldagaien konbergentzia-moduak. Zenbaki handien lege sendoak eta ahulak. Limitearen teorema zentrala.

**METODOLOGIA**

Eduki teorikoa klase majistraletan azalduko da, Bibliografian eta erabili beharreko materialen agertzen diren oinarrizko erreferentziei jarraituz. Klase majistral horiek osatzeko, ikasgelako praktikak daude, non klase teorikoetan lortutako ezagutza erabiliz, ikasleek problemak ebazteko beharrezkoak dituzten. Mintegietan irakasgaiaren adierazgarri diren ariketak eta adibideak garatuko dira. Orokorrean, ariketa eta adibide hauek ikasleei aurretiaz entregatuko zaizkie, beraiek lantzeko eta dagokion saioan gogoeta eta eztabaida motibatzeko. Bestalde, ordenagailu praktikak landuko dira irakasgaiko gaitasunak lortzera bideratuta.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	6	21		3				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	45	9	31,5		4,5				

**Legenda:**

M: Maistrala  
GCL: P. klinikoak

S: Mintegia  
TA: Tailerra

GA: Gelako p.  
TI: Tailer Ind.

GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Ebaluazio jarraituaren sistema

- Azken ebaluazioaren sistema

#### **KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Ikusi orientazioak % 100

#### **OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

##### **EBALUAZIO JARRAITURAKO ORIENTAZIOAK:**

Irakasgai honetan, aurkezpenak, lan teoriko zein ariketa praktikoek ebazpena, praktikak eta proba idatziak ebaluatuko dira.

Zehazki:

Azken azterketa idatzia (%75)

Praktikak, ariketak, azterketa partzialak, lanen aurkezpenak gauzatzea (%25)

Irakasgaia gainditzeko beharrezkoa izango da gutxienez 10etik 4 bat ateratzea azken azterketa idatzian.

Ohiko deialdiko egunean egingo den azken proba idatzira aurkezten ez den ikaslea, Ez aurkeztua bezala ebaluatuko da.

Ebaluazio jarraituan parte hartu nahi ez duen ikasleak, ebaluazio jarraituari ofizialki uko egin diezaioteko. Horretarako ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, lauhilabetekoa hasten denetik bederatzi asteko epea izango du

##### **AZKEN EBALUAZIORAKO ORIENTAZIOAK:**

Ohiko deialdiko egunean, irakasgaiaren landutako konpetentzia guztiak ebaluatzen dituen proba bat egingo da eta proba honek notaren %100 balioko du.

#### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ez-ohiko deialdiko egunean, irakasgaiaren landutako konpetentzia guztiak ebaluatzen dituen proba bat egingo da. Proba hau ondoko erara ebaluatuko da:

%97: Ondoko bi emaitzetatik maximoa kalkulatu da: 1) Azterketa idatzia (%97) eta 2) azterketa idatzia (75%, irakasgaia gainditzeko beharrezkoa izango da gutxienez 10etik 4 bat ateratzea) gehi lauhilabetekoan zehar egindako lanak, aurkezpenak eta azterketa partzialak (%22)

%3: Ordenagailu praktiken azterketa

Ohiko deialdian ordenagailuko praktiken nota 10etik 4koa edo gehiago bada, ez da beharrezkoa ordenagailuko praktiketako azterketa ez-ohiko deialdian egitea.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

G. GRIMMETT y D. WELSH, Probability: an introduction, Oxford Science Publications.

J. PITMAN, Probability, Springer-Verlag.

S.M. ROSS, A First Course in Probability, Prentice Hall.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

##### **Aldizkariak**

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

R Core Team (2018). R: A language and environment for statistical computing. R Foundation for Statistical Computing, Vienna, Austria.

URL <http://www.R-project.org/>

#### **OHARRAK**



**Ikastegia** 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GMATEM31 - Matematikako Gradua**Ikastaroa** 2. maila**IRAKASGAIA**

26687 - Topologia

**ECTS kredituak:** 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgaiaren helburua ikaslea Topologia Orokorreko oinarrizko teknika eta nozioekin ohitzea da.

Lehendabizi ikasleak espazio topologikoak definitzeko modu ezberdinak ezagutzea da gure xedea, ireki oinarri eta azpionarria, inurune-sistemak eta ingurune-oinarriak erabiliz. Lehenengo gai honetan espazio metrikoen azterketak arreta berezia merezi du.

Jarraian Topologia Orokorreko oinarrizko gai batzuk aztertzen dira: funtzioen jarraitutasuna, espazio topologiko eratorriak eraikitzea (biderkadura eta zatidura espazioak), trinkotasuna eta konexutasuna.

Irakasgaiaren helburua zera da, ikaslea topologiaren ezagutzarekin hastea, Geometria eta Topologia eta Analisi Matematiko arloetako beste hainbat irakasgaitan beharrezkoak diren oinarrizko egiturak aztertuz.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK****GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

Espazio topologiko eta metrikoen oinarrizko kontzeptu, metodo eta emaitzak (eta frogapenak) ezagutzea eta bereganatzea.

Jarraitutasuna, trinkotasuna eta konexutasunaren kontzeptuen ezagutzea.

Espazio topologikoaren adibideak eraikitzea azpiespazio topologiko, biderkadura espazio eta zatidura espazioaren nozioak erabiliz.

Segiden konbergentzia erabiltzea jarraitutasuna eta trinkotasuna aztertzeko.

**IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

Egitura topologikoak adibide konkretuetan ezagutzea.

Jarraitutasuna, trinkotasuna eta konexutasunaren kontzeptuen erabiltzen jakitea.

Espazio topologikoaren adibideak eraikitzen jakitea azpiespazio topologiko, biderkadura espazio eta zatidura espazioaren nozioak erabiliz.

Segiden konbergentzia erabiltzen jakitea jarraitutasuna eta trinkotasuna aztertzeko.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

1. ESPAZIO TOPOLOGIKOAK: Topologia. Azpimultzo irekiak eta itxiak. Topologia baten oinarria eta azpionarria. Inguruneak. Ingurune-oinarriak. Distantzia. Espazio metrikoa. Bola irekiak eta itxiak.

2. AZPIMULTZOAK ESPAZIO TOPOLOGIKOETAN: Multzo baten barrualdea. Multzo baten itxitura. Metatze-puntuak eta puntu isolatuak. Multzo deribatua. Multzo baten muga.

3. JARRAIKITASUNA: Aplikazio jarraituak. Homeomorfismoak. Propietate topologikoak. Segidak espazio metrikoetan: konbergentzia eta segidazko jarraitutasuna.

4. ESPAZIO TOPOLOGIKOEN ERAIKUNTZA: Azpiespazioak. Aplikazio konbinatuak. Murgilketak. Biderkadura topologia. Proiekzioak. Zatidura topologia. Identifikazioak.

5. TRINKOTASUNA: Espazio eta azpimultzo trinkoak. Espazio trinkoen biderkadura. Segidazko trinkotasuna. Trinkotasuna Hausdorff espazioetan.

6. KONEXUTASUNA ETA BIDEZKO KONEXUTASUNA: Espazio eta azpimultzo konexuak. Osagai konexuak. Bideak espazio topologikoetan. Bidezko konexutasuna. Osagai bidez konexuak.

**METODOLOGIA**

Eduki teorikoa eskola magistralen bidez azalduko da, horretarako bibliografian eta nahitaezko materialean ageri diren oinarrizko erreferentziak erabiliko direlarik.

Eskola magistral hauen osagarri gisa ariketa-eskolak erabiliko dira. Horietan, eskola teorikoetan landutako edukien alde praktikoa jorratuko da.

Azkenik, mintegietan irakasgai honetako zenbait adibide edota ariketa adierazgarri izango dira eztabaidagai.

Mintegian zehar izango den hausnarketa eta eztabaida aberatsagoa izan dadin, ariketa horiek ikasleei alde aurretik proposatuko zaizkie mintegiaren egunerako landuta ekartzeko.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	6	18						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	54	9	27						

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako d. GL: Laborategiko d. GO: Ordenagailuko d.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa d.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikus ORIENTAZIOAK % 100

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa idatzia. (Pisua: %70-%85)

Irizpideak:

- Arrarazoibide eta definizioen doitasuna.
- Hizkuntza matematikoaren erabilera zuzena.
- Arrazoibide prozedura zuzena, erabilitako argudioen eta bitarteko pausuen azalpen argia eta ordenatuarekin.

Mintegiak (Pisua: %5-%10)

Irizpideak:

- Erantzun zuzenak eta hizkuntza matematikoaren erabilera zuzena.
- Arrarazoibideen argitasuna.
- Ahozko aurkezpenetan, ordena eta doitasuna.

Idatzitako ariketen ebazpena (Pisua: %10-%20)

Irizpideak:

- Erantzun zuzenak eta hizkuntza matematikoaren erabilera zuzena.
- Arrarazoibideen argitasuna.
- Entregatutako ariketetan, ordena eta doitasuna.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa idatzia: 100%

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Gelako apunteak. Proposatutako ariketen zerrendak.

## BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

Teoria

- R. AYALA, E. DOMINGUEZ y A. QUINTERO; Elementos de Topología General, Addison-Wesley Iberoamericana, 1997.  
J. R. MUNKRES, Topología, Prentice Hall, 2002.  
S. WILLARD, General Topology, Dover Publications Inc, 2004.

Ariketak

- G. FLEITAS MORALES Y MARGALEF ROIG, Problemas de Topología General, Alhambra, 1980.  
G. FLORY; Ejercicios de Topología y Análisis, Reverté, 1978.  
E.G. MILEWSKI, Problem solvers. Topology, Research & Education Association, 1994.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- I. ADAMSON; A General Topology Workbook, Birkhäuser, 1995.  
E. BURRONI, J. PENON, La géométrie du caoutchouc. Topologie, Ellipses, 2000.  
L. A. STEEN y J. A. SEEBACH, Counterexamples in Topology, Dover, 1995.  
O. YA. VIRO, O. A. IVANOV, N. YU. NETSVETAEV y V. M. KHARLAMOV, Elementary Topology. Problem Textbook, AMS, 2008.

### Aldizkariak

Americal Mathematical Monthly

### Interneteko helbide interesgarriak

Topology without tears  
<http://uob-community.ballarat.edu.au/~smorris/topology.htm>

Topology Atlas  
<http://at.yorku.ca/topology/>

**OHARRAK**

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GMATEM31 - Matematikako Gradua

Ikastaroa 2. maila

**IRAKASGAIA**

26667 - Zenbakizko Metodoak I

ECTS kredituak: 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honek eta hirugarren mailako Zenbakizko Metodoak II irakasgaiak duten helburu komuna da Zenbakizko Analisiaren oinarriko metodo eta teknika garrantzitsuenetariko batzuen aurkezpen sistematikoa eskaini ahal izatea. Bietarako ordenagailu praktikak burutzea derrigorrezko betekizuna izango da programazio hizkuntza bat erabiliz. Irakasgai hauekin nahi da ikasleak materia hauen oinarriko prestakuntza horizontala lor dezala horrelako ezagupenak eta trebetasunak ulertzeko eta aplikatzeko elkarrekin erlazionatutako norabide anitzetan.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK****GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

Algoritmoak inplementatzea programazio egituratuaren hizkuntza batean.

Zenbakizko ebazpenaren algoritmoak erabiltzea, zenbakizko metodoak ordenagailuaren bidez programatzea eta aplikatzea modu eraginkor batean.

Problema zehatz baterako zenbakizko metodo baten edo beste baten egokitasuna aztertzea.

Konputazio prozesu baten ondoren lortutako emaitzak ebaluatzea eta ondorioak ateratzea.

**IRAKASGAIAREN IKASTEAREN EMAITZAK**

Zenbakizko kalkuluaren oinarriko teknikak eta haien itzulpena algoritmoetara edo problema-soluzioen metodo eraikitzailetara ezagutzea.

Ikasitako zenbakizko metodoak hizkuntza egitaratuaz programatzea eta era eraginkorrean aplikatzea.

Ikasitako metodo batzuk maneiatzen eta aplikatzen dituzten pakete informatikoak erabiltzea, eta horiek tresna moduan erabiltzea ikasle berak egindako programetan.

Problema zehatz baterako zenbakizko metodo baten edo beste baten egokitasuna analizatzea errore analisisan, kostu konputazionalean eta beste ezaugarri batzuetan oinarrituta.

Kalkulu prozesu baten ondoren lortutako emaitzak ebaluatzea eta ondorioak ateratzea.

Irakasgai honen gaiei dagozkien ideiak eta emaitzak ahoz eta idatziz azaltzea.

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK****EDUKI TEORIKOAK**

1. ZENBAKIZKO METODOEN SARRERA: Ordenagailuaren eta errore hedakuntzaren aritmetika.

2. MATLAB-I BURUZKO OINARRIZKO NOZIOAK.

3. EKUAZIO LINEALEN SISTEMEN EBAZPENA: Metodo zuzenak. Minimo karratuen metodoak eta sistema gaindeterminatuak.

4. EKUAZIOEN ETA SISTEMA EZ-LINEALEN EBAZPENA: Ekuazio ez-linealen erro-bilaketa metodoak. Puntu finkoaren metodoak eta Newton-en metodoa.

**EDUKI PRAKTIKOAK**

Ordenagailuko praktikak eduki teorikoen gaiekin elkartuta daude. Eduki horiek sendotuko dira eta ikasitako algoritmoak egokiro inplementatuko dira.

**METODOLOGIA**

Eduki teorikoa eskola magistraletan azalduko da eGELA plataformako ikasgela birtualean gordetako apunteei jarraituz. Eskola magistral horiek problema eskolekin (ikasgelako praktikekin) osatuko dira eta haietan ikasleei ariketak proposatuko zaizkie eskola teorikoetan lortutako ezagupenak aplikatzeko. Mintegietan irakasgaiaren edukiko ariketa eta adibide adierazgarriak garatuko dira; orokorrean, horiek ikasleei lehenago emanda izango dira, hauek bere kabuz lantzeko, gero gai horri esleitutako saio batean hausnartzeko eta eztabaidatzeko. Gainera, irakasgaiaren gaitasunak lortzera zuzendutako ordenagailu praktikak egingo dira. Praktika hauek programazio hizkuntza batean burutuko dira, irakasgai honetan MATLAB erabiliko dugu.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	6	9		15				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	45	9	13,5		22,5				

**Legenda:**

M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikokoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

## **EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## **KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Ikusi ORIENTAZIOAK % 100

## **OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

- Azkeneko azterketa: %50
- Ordenagailu praktikak: %20
- Mintegiak: %10
- Proba partzialak: %20

Aurretik zehaztutako porzentaiak eta irizpideak aplikatzeko, azkeneko azterketan 10 gainean 4ko nota gutxienez ateratzea ezinbestekoa da; bestela, azken nota azterketa horrena izango da.

### **AZKEN EBALUAZIOAREN IRIZPIDEAK:**

Ebaluazio jarraitua egin nahi ez duten ikasleek aukera izango dute azken ebaluazioa aukeratzeko. Hala ere, aukera hau egiten duten ikasleek irakasleari idatziz adierazi beharko diote lauhilabetekoa hasi eta gehienez 15 asteko epean. Ebaluazio mota hau aukeratzeko duten ikasleek azterketa egiteaz gain, ebaluazio globaleko proba gehigarri bat burutu beharko dute azterketa aldi ofizialean. Jarduera hau ahozko azalpena, ordenagailu aurrean egin beharreko proba edo lan idatzia izan daitezke, eta kurtsoan zehar burututako ekintzetan lortu beharreko konpententziak ebaluatzeko balio du.

-

## **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ebaluazio-irizpideak ohiko deialdiaren berdina izango dira.

Ikasturtean zehar egindako jarduerak (ordenagailuko praktikak, ariketak, mintegiak) ebaluatuak izango dira ikasturteko bi deialdietarako. Ondorioz, ikasturtean zehar jarduera horiek gainditu duen ikasleak azterketa idatzira bakarrik aurkeztu beharko da ez-ohiko deialdian.

Ikasturtean zehar ebaluatoriko jarduerak gainditu ez dituen ikasleak edo azken ebaluazioaren modalitatea aukeratu dutenak, ez-ohiko deialdian, jarduera horiek ebaluatzeko, diseinaturiko proba osagarri bat egin beharko du. Proba hori ikasturtean zehar egindako jardueraz ahozko azalpena, ordenagailu aurrean erakustaldi bat edo lan idatzi bat izan daiteke. Proba horren balioa ohiko deialdian bezainbeste proportzioan kontuan hartuko da behin betiko notan.

## **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

EGELA plataforman irakasleak jarritako apunteak eta beste ikasmaterial batzuk.

## **BIBLIOGRAFIA**

### **Oinarrizko bibliografia**

- C.B. Moler: Numerical Computing with MATLAB, SIAM, 2004.
- J.M. Sanz-Serna: Diez lecciones de Cálculo Numérico, Universidad de Valladolid, 2010.
- J. Stoer and R. Bulirsch: Introduction to Numerical Analysis. Springer-Verlag, Inc., 1993.
- K.E. Atkinson: An Introduction to Numerical Analysis, John Wiley & Sons, 1989.
- U.M. Ascher and C. Greif: A First Course in Numerical Analysis, SIAM, 2011.

### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

- L.N. Trefethen, D. Bau: Numerical Linear Algebra, SIAM, 1997.
- N.J. Higham: Accuracy and Stability of Numerical Algorithms, SIAM, 1996.
- A. Quarteroni, R. Sacco, F. Saleri: Numerical Mathematics, Springer, 2000.

### **Aldizkariak**

&#8230;&#8230;&#8230;..

### **Interneteko helbide interesgarriak**

&#8230;&#8230;&#8230;&#8230;&#8230;..

## **OHARRAK**

&#8230;&#8230;&#8230;..